3.- La publicación en la sede electrónica de informaciones, servicios y transacciones respetará los principios de accesibilidad y uso de acuerdo con las normas establecidas al respecto, estándares abiertos y, en su caso, aquellos otros que sean de uso generalizado por los ciudadanos.

4.- Los servicios en la sede electrónica estarán operativos las 24 horas del día, todos los días del año. Cuando por razones técnicas se prevea que la sede electrónica o algunos de sus servicios puedan no estar operativos deberá anunciarse con la máxima antelación que sea posible, indicando los medios de consulta alternativos que estén disponibles.

## **Artículo 11.- Condiciones de identificación de las sedes electrónicas y seguridad de sus comunicaciones**

1.- Las direcciones electrónicas del ayuntamiento y de los organismos públicos vinculados o dependientes de la misma que tengan la condición de sedes electrónicas deberán hacerlo constar de forma visible e inequívoca.

2.- La sede electrónica tendrá accesible su instrumento de creación, directamente o mediante enlace a su publicación en el Boletín Oficial

daraman esteka baten bidez.

3.- Egoitza elektronikoak euskarritzat dituen informazio-sistemek kudeatzen dituzten informazioen konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna eta osotasuna bermatu beharko dituzte, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren arabera eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren arabera.

correspondiente.

3.- Los sistemas de información que soporten la sede electrónica deberán garantizar la confidencialidad, disponibilidad e integridad de las informaciones que manejan, de conformidad con el Esquema Nacional de Interoperabilidad y Esquema Nacional de Seguridad.

## **12. artikulua.- Egoitza elektronikoaren edukia**

1.- Egoitza elektronikoak, gutxienez, eduki eta zerbitzu hauek jasoko ditu:

a) Egoitzaren identifikazioa, erreferentziarako helbide elektronikoa adierazita; egoitzaren titulartasuna duen organoaren –edo duten organoen– identifikazioa, bai eta kudeaketaren eta administrazioaren erantzukizuna dutenena ere.

b) Egoitza eta, halakorik badago, azpiegoitza eratorriak sortzeko tresna, edo dagokion aldizkari ofizialeko haren argitalpena daraman esteka.

c) Egoitza era zuzenean erabiltzeko beharrezko informazioa, egoitza elektronikoaren mapa edo informazio baliokidea barne, nabigazio-egitura eta eskuragarri dauden atalak berariaz azalduta, bai eta jabetza intelektualari buruzko informazioa ere.

d) Egoitzaren ziurtagiriak egiaztatzeko sistema; zuzenean eta doan egongo da eskuragarri.

e) Izapide bakoitzerako onartzen diren identifikazio elektronikoko sistemak.

## **Artículo 12.- Contenido de la sede electrónica**

1.- La sede electrónica dispondrá al menos del siguiente contenido y servicios:

a) Identificación de la sede, especificando la dirección electrónica de referencia, así como la identificación del órgano u órganos titulares y de los responsables de su gestión y administración.

b) Instrumento de creación de la sede y, en su caso, de las subsedes derivadas, o vínculo a su publicación en el Boletín Oficial correspondiente.

c) Información necesaria para la correcta utilización de la sede incluyendo el mapa de la sede electrónica o información equivalente, con especificación de la estructura de navegación y las distintas secciones disponibles, así como la relacionada con propiedad intelectual.

d) Sistema de verificación de los certificados de la sede, que estará accesible de forma directa y gratuita.

e) Sistemas de identificación electrónica admitidos para cada uno de los trámites.

- f) Egoitzan, izapide bakoitzerako, onartzen edo erabiltzen diren izenpe elektronikoko sistemak.
- g) Datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitza elektronikora daraman esteka bat ere jasota.
- h) Agiriak bide elektronikoz aurkezteari buruz laguntza ematen duten bulegoen zerrenda eguneratua, bulego horiek irekita egoten diren egunak eta ordutegiak ere adierazita. Halaber, direktorio geografiko bat azalduko da, interesdunak bere etxetik hurbilen dagoena aurkitu ahal izateko, erregistro-arloan laguntza ematen duten bulegoen artean,.
- i) Egoitza elektronikoa eskuragarri dauden zerbitzuen zerrenda, eta haietara jotzeko bideen azalpena.
- j) Eskabide-ereduak.
- k) Data eta ordu ofizialak.
- l) Herritarrek Udalarekin komunikatzeko erabil ditzaketen aurrez aurreko bide, bide telefoniko zein bide elektronikoen zerrenda.
- m) Kasuan kasuko organo eskudunen aurrean iradokizunak eta kexak aurkezteko postontzia.
- n) Udalaren Erregistro Elektronikoa Orokorra sortzeko ebazpena.
- ñ) Erregistro Elektronikoa Orokorraren bidez has daitezkeen izapideen zerrenda eguneratua, bai eta modalitate elektronikotik kanpo utzitakoena ere, eta izapidetze sinplifikatuko prozeduren zerrenda.
- f) Sistemas de firma electrónica que sean admitidos o utilizados en la sede para cada uno de los trámites.
- g) Información relacionada con la protección de datos de carácter personal, incluyendo un enlace con la sede electrónica de la Agencia Vasca de Protección de Datos.
- h) Relación actualizada de oficinas en las que se prestará asistencia para la presentación electrónica de documentos, con directorio geográfico que permita al interesado identificar la oficina de asistencia en materia de registros más próxima a su domicilio, así como los días y el horario en que permanecerán abiertas.
- i) Relación de los servicios disponibles en la sede electrónica e identificación de los canales de acceso a los mismos.
- j) Modelos de solicitudes
- k) Indicación de la fecha y hora oficial.
- l) Relación de los medios presenciales, telefónicos y electrónicos que los ciudadanos pueden utilizar para comunicarse con el ayuntamiento.
- m) Buzón para la formulación de sugerencias y quejas ante los órganos que en cada caso resulten competentes.
- n) Resolución de creación del Registro Electrónico General del ayuntamiento
- ñ) Relación actualizada de trámites que puedan iniciarse mediante el Registro Electrónico General, y de aquellos excluidos de la modalidad electrónica así como, en su caso, relación procedimientos de

- o) Erregistro elektronikoan kontuan hartzearen ondoretarako, balio gabetzat jotzen diren egunen egutegia.
- p) Epeak luzatzea eragiten duten gorabehera teknikoaren azalpena.
- q) Iragarkien edo ediktuen ohol elektronikoa, bai Udalarenak, bai hari lotutako edo haren mendeko erakundearenak jasotzekoa.
- r) Aldizkari eta egunkari ofizialetarako sarbidea.
- s) Egoitza elektronikoaren barnean harturiko organo edo erakunde publikoen zigilu elektronikoen zerrenda, ziurtagiri elektronikoak eta haiek ematen dituzten ziurtapen-zerbitzuen emaileen ezaugarriak nahiz ziurtagiriok egiaztatzeko neurriak azaldurik.
- t) Erakundeak eta haren mendekoek erabiltzen dituzten egiaztapen-kode seguruen bidez sorturiko edo autentifikaturiko agirien autentikotasuna eta osotasuna egiaztatzeko sistemak.
- u) "Apud acta" ahalordeak agerraldi elektronikoaren bidez emateko zerbitzua.
- v) Ahalorde-erregistro elektronikoa.
- w) Interesdunei bitarteko elektronikoen erabilerarako laguntza emateko eta zinezko kopiak egiteko gaitutako enplegatu publikoen erregistroa.
- x) Erakundearen eta haren mendekoaren gardentasun-ataria.
- y) Kontratatzaileraren profila.
- o) Tramitación simplificada.
- o) Calendario de días que se consideran inhábiles a efectos de cómputo de plazos en el registro electrónico.
- p) Identificación de incidencias técnicas que determinen ampliación de plazos.
- q) Tablón electrónico de anuncios o de edictos electrónico del ayuntamiento y sus entidades y organismos vinculados o dependientes.
- r) Acceso a la publicación de boletines y diarios oficiales.
- s) Relación de los sellos electrónicos de los órganos u organismos públicos incluidos en la sede electrónica, especificando las características de los certificados electrónicos y los prestadores que los expidan, así como las medidas para su verificación.
- t) Sistema de comprobación de la autenticidad e integridad de los documentos generados o autenticados mediante códigos seguros de verificación utilizados por la entidad y sus entes dependientes.
- u) Servicio de apoderamiento "apud acta" efectuado por comparecencia electrónica.
- v) Registro electrónico de apoderamientos.
- w) Registro de empleados públicos habilitados para la asistencia a los interesados en el uso de medios electrónicos y para la expedición de copias auténticas.
- x) Portal de transparencia de la entidad y sus entes dependientes.
- y) Perfil de contratante.

z) Legez edo erregelamenduz galdagarriak diren eta egoitzaren erantzukizuna duen organo titularrak gehitutako beste eduki, informazio edo zerbitzu batzuk.

*(Beste eduki batzuk ere gehi daitezke, hala nola administrazio elektronikoaren arloko araudia, herritarraren karpeta...).*

2. Azpiegoitzak sortzea erabakitzen denean, ez da beharrezkoa izango haietan jasotzea aurreko letretan aipatzen diren informazio eta zerbitzuak, azpiegoitza horiek eratorritako egoitzan jadanik ageri baldin badira.

3.- Egoitza elektronikoak bermatu egingo du bere eduki eta zerbitzuetara, euskaraz eta gaztelaniaz, gutxienez, jo ahal izatea. Salbuetsita daude beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuei dagozkien lotura edo estekak, baldin halakoek ez badituzte bi hizkuntzotan eskaintzen.

z) Otros contenidos, informaciones o servicios que legal o reglamentariamente sean exigibles o que se añadan por el órgano titular responsable de la sede.

*(Pueden también incorporarse otros contenidos como normativa en materia de administración electrónica, carpeta ciudadana...).*

2. En el supuesto de que se acuerde la creación de subse-des no será necesario recoger en éstas la información y los servicios a que se refieren los apartados anteriores cuando ya figuren en la sede de la que aquéllas derivan.

3.- La sede electrónica garantizará el acceso a sus contenidos y servicios, al menos, en euskera y castellano. Se exceptúan los contenidos correspondientes a enlaces o vínculos correspondientes a otras administraciones o entidades públicas o privadas siempre que éstas no los ofrezcan en ambos idiomas.

## **II. KAPITULUA- ERREGISTRO ELEKTRONIKOA**

### **13. artikulua.- Erregistro Elektroniko Orokorra**

## **CAPÍTULO II.- DEL REGISTRO ELECTRÓNICO**

### **Artículo 13.- Registro Electrónico General**

*a) aukera:*

*1.- Ordenantza honen bidez Udalaren Erregistro Elektroniko Orokorra sortzen eta arautzen da. Erregistrorako sarbidea (https//.....) egoitza elektronikoaren bidezkoa izango da, Udal honek onartutako eta ordenantza honetako (hirugarren tituluan) araututako bideetakoren bat baliatuz.*

*Opción a):*

*1.- Mediante la presente Ordenanza se crea y regula el funcionamiento del Registro Electrónico General del ayuntamiento. El acceso al mismo se realizará a través de la sede electrónica ( https//.....) previa identificación mediante alguno de los medios aceptados por este ayuntamiento regulados en el (Título Tercero) de esta Ordenanza.*

<p><i>b) aukera:</i></p> <p>1.- Ordenantza honen bidez, Udalaren Erregistro Elektronik Orokorraren funtzionamendua arautzen da; hain zuzen, erregistroa (r)en erabakiz sortu zen, eta erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean .....(e)ko(a)n argitaratu zen.</p>	<p><i>Opción b):</i></p> <p>1.- Mediante la presente Ordenanza se regula el funcionamiento del Registro Electrónico General del ayuntamiento, creado por acuerdo de y publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de fecha.</p>
---	--

<p><i>a) aukera:</i></p> <p>2.- Erregistro Elektronik Orokorraren kudeaketaren ardura Udalaren barne-antolamenduko arauen arabera eskumen hori esleiturik daukan organo edo unitatearena izango da.</p> <p><i>b) aukera:</i></p> <p>2.- Erregistro Elektronik Orokorraren kudeaketaren ardura duen organo edo unitatea Udaleko Idazkaritza Nagusia da.</p> <p><i>c) aukera:</i></p> <p>2.- Biztanleria handiko udalerrientzat: Erregistro Elektronik Orokorraren kudeaketaren ardura duen organo edo unitatea Udaleko Osoko Bilkurako Idazkaritza da, eta Tokiko Gobernu Batzarreko Idazkaritzari Laguntzeko Organoa.</p>	<p><i>Opción a):</i></p> <p>2.- El órgano o unidad responsable de la gestión del Registro Electrónico General, será el que tenga atribuida tal competencia según las normas internas de organización</p> <p><i>Opción b):</i></p> <p>2.- El órgano o unidad responsable de la gestión del Registro Electrónico General es la Secretaría del ayuntamiento</p> <p><i>Opción c):</i></p> <p>2.- Para Municipios de gran población: El órgano o unidad responsable de la gestión del Registro Electrónico General es la Secretaría de Pleno y el órgano de apoyo a la Secretaría de la Junta de Gobierno Local</p>
---	--

3.- Udalari lotutako edo haren mendeko erakundeek erregistro elektronikoa Udalaren Erregistro Elektronik Orokorrarekin interkonektatuak egongo dira eta elkarreragingarriak izango dira, eta beren bateragarritasun informatikoa eta interkonektatzea bermatu beharko dituzte, bai eta erregistro-idazpenen eta aurkezturiko agirien transmisio telematikoa ere.

3.- Los registros electrónicos pertenecientes a entidades y organismos vinculados o dependientes del ayuntamiento estarán interconectados y serán interoperables con el registro electrónico general del mismo, debiendo garantizar su compatibilidad informática e interconexión, así como la transmisión telemática de los asientos registrales y de los documentos que se presenten.



4.- Erregistro Elektroniko Orokorra administrazio publiko guztien artean erregistroko idazpen elektronikoak trukatzeko sistemekin interkonektatua egongo da, eta haiekin elkarreragingarria izango da.

4.- El Registro electrónico general estará interconectado y será interoperable con los sistemas que permitan el intercambio de asientos electrónicos de registro entre todas las Administraciones Públicas

#### **14. artikulua.- Erregistro Elektroniko funtzionamendua**

#### **Orokorren**

#### **Artículo 14.- Funcionamiento del Registro Electrónico General**

1.- Erregistro Elektroniko Orokorrean, Udalari lotutako edo haren mendeko edozein administrazio-organotan edo erakunde publikotan aurkezten den edo jasotzen den agiri orori dagokion sarrera-idazpena egingo da, haren funtzionamendua eraentzen duten printzipio eta arauen arabera. Era berean, erregistro horretan idatziko da beste administrazio publiko batzuei, halakoei lotutako edo halakoen mendeko erakundeei edo partikularrei zuzenduriko agirien irteera.

1.- En el Registro Electrónico General se realizará el correspondiente asiento de entrada, de acuerdo con los principios y normas que rigen su funcionamiento, de todo documento que sea presentado o que se reciba en cualquier órgano administrativo, entidad u organismo público vinculados o dependientes del ayuntamiento. También se anotará en el mismo, la salida de los documentos oficiales dirigidos a otros órganos de las Administraciones públicas, de sus entidades u organismos vinculadas o dependientes, o a los particulares.

Erregistroak erakunde bakoitzaren erregistro elektronikoetarako sarbidea ematen duen atari baten eran funtzionatzen du, eta data eta ordu ofizialak adieraziko ditu, egoitza elektronikoan ageri den berbera, hain zuzen, bai eta toki-erakundearentzat eta berari lotutako edo beraren mendeko erakunde publikoentzat baliogabetzat jotzen diren egunak ere.

El Registro funciona como un portal que facilita el acceso a los registros electrónicos de cada organismo e indicará la fecha y hora oficial, que será la misma que figure en la sede electrónica, así como la relación de los días declarados como inhábiles para la entidad local y sus entidades y organismos públicos vinculados o dependientes.

Erregistro honetan, agiriak urteko egun guztietan hogeita lau orduetan aurkeztu ahalko dira.

En este Registro se podrán presentar documentos todos los días del año durante las veinticuatro horas.

2.- Idazpenak egingo dira agirien harreraren edo irteeraren denbora-ordena errespetatuz, eta halakoak gertatzen diren egunaren data adieraziko dute. Erregistratze-izapidea

2.- Los asientos se anotarán respetando el orden temporal de recepción o salida de los documentos, e indicarán la fecha del día en que se produzcan. Concluido el trámite de registro, los documentos serán

bukatu ondoren, agiriak berehala helaraziko zaizkie beren hartzaileei eta dagozkien administrazio-unitateei, jaso diren erregistrotik.

3.- Erregistro Elektronik Orokorrak eta lotutako edo mendeko erakundeenak, gutxienez, idazpen bakoitzean honakoa hauek jasota uztea bermatuko du:

- a) Idazpen-zenbaki edo identifikatzaile uniboko bat.
- b) Idazpen-mota.
- c) Aurkeztu den data eta ordua.
- d) Interesdunaren identifikazioa.
- e) Administrazio-organo bidaltzaileari, hala badagokio.
- f) Bidaltzen zaion pertsona edo administrazio-organoa.
- g) Hala badagokio, erregistratzen den agiriaren edukiaren aipamena.

4.- Sarrera-idazpen bakoitzaren frogagiri bat emango da, dena delako agiriaren kopia autentifikatu bat izango dena, honako hauek jasota:

- a) Erregistro Elektronik Orokorreko idazpenaren bidez aurkezturiko idazki, komunikazio edo eskabidearen edukia; horretarako, onargarria izango da hitzez hitz berriz jartzea aurkezpen-inprimakian emandako datuak.
- b) Aurkezpenaren data eta ordua; horrexek ezarriko du Udalak bete beharreko epearen zenbaketaren hasiera.
- c) Idazpenak Erregistro Elektronik Orokorrean daukan zenbaki edo

cursados sin dilación a sus destinatarios y a las unidades administrativas correspondientes desde el registro en que hubieran sido recibidas.

3.- El Registro Electrónico General y de sus entidades y organismos vinculados o dependientes garantizará la constancia, como mínimo y en cada asiento que se practique, de:

- a) Un número o identificador unívoco del asiento.
- b) La naturaleza del asiento.
- c) La fecha y hora de su presentación.
- d) La identificación del interesado.
- e) El órgano administrativo remitente, si procede.
- f) La persona u órgano administrativo al que se envía.
- g) En su caso, referencia al contenido del documento que se registra.

4.- De cada asiento de entrada, se emitirá automáticamente un recibo consistente en una copia autenticada del documento electrónico de que se trate, incluyendo:

- a) El contenido del escrito, comunicación o solicitud presentada mediante el asiento en el Registro Electrónico General, siendo admisible a estos efectos la reproducción literal de los datos introducidos en el formulario de presentación.
- b) La fecha y hora de presentación que determinará el inicio del cómputo de plazos que haya de cumplir el ayuntamiento.
- c) El número o identificador del asiento en el Registro Electrónico

identifikatzailea.

d) Aurkezturiko agiriari elkartu eta erantsi zaizkion agirien zerrenda eta izendapenak, halakorik erantsi bada, ondoren halako bakoitzaren hatz-marka digitala jarrita, agiriok hartu izanaren frogagiri gisa, haien osotasuna eta ezin arbuizatzea bermatze aldera.

e) Automatikoki zehatz daitekeenean eta idazpena egiten denean interesdunaren eskariz prozedura hasteko izapide bati loturik, frogagirian jasoko da izapidetzeko ardura duen administrazio-unitateari, prozedura ebatzi eta jakinarazteko arauz ezarrita dagoen gehieneko epeari, eta administrazio-isiltasunak izan ditzakeen ondoreei buruzko informazioa.

f) Idazpena egiten denean interesdunaren eskariz prozedura hasteko izapide bati loturik eta automatikoki zehatz daitekeenean dena delako prozesura hasteko behar den dokumentazioaren zati bat edo dokumentazio osoa falta dela, lehen aipaturiko frogagiriarekin batera zuzentzeko errekerimendu bat emango da, 10 eguneko epea emanda zuzentzeko.

4.- Interesdunek Udaleko organoei edo lotutako edo mendeko erakundeei zuzendutako agiriak honako hauetan aurkeztu ahalko dira:

a) Agiriak zuzenduta doazkion udalaren edo erakundearen erregistro elektronikoa nahiz edozein

General.

d) La enumeración y la denominación de los documentos que, en su caso, acompañen y adjunten al documento presentado, seguida de la huella electrónica de cada uno de ellos que actuará como recibo acreditativo de los mismos con la finalidad de garantizar la integridad y el no repudio de los mismos.

e) Cuando sea automáticamente determinable y el asiento se realice asociado a un trámite como iniciación del procedimiento a solicitud del interesado, se incluirá en el recibo la información de la unidad administrativa responsable de su tramitación, del órgano responsable de su resolución, del plazo máximo establecido normativamente para la resolución y notificación del procedimiento y de los efectos que pueda producir el silencio administrativo.

f) Cuando el asiento se realice asociado a un trámite como iniciación del procedimiento a solicitud del interesado y sea automáticamente determinable la falta de parte o toda la documentación necesaria para la iniciación del procedimiento en cuestión, se emitirá junto al recibo mencionado anteriormente un requerimiento de subsanación y el otorgamiento de un plazo de 10 días para realizarla.

4.- Los documentos que los interesados dirijan a los órganos del ayuntamiento o a sus entidades u organismos vinculados o dependientes, podrán presentarse:

a) En el registro electrónico del ayuntamiento u organismo al que se dirijan, así como en los restantes

administrazio publikoren gainerako erregistro elektronikoetan.

b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den eran.

c) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

d) Erregistro-arloko laguntzarako bulegoetan.

e) Indarrean diren xedapenek ezarritako beste edozein lekutan.

5.- Udalari paperean aurrez aurre aurkezturiko agiriak (Herritarren Arretarako Zerbitzuak / erregistro-arloko laguntzarako bulegoak) digitalizatu beharko ditu, administrazio-espeditante elektronikora gehitzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuli beharko zaizkio, hori eragozpena izan gabe aurkezturiko agiriak administrazioak zaindu behar dituela edo zenbait objektu edo agiri digitaliza ezin daitekeen euskarri berezi batean nahitaez aurkezten behar direla arauz ezarrita dagoen kasuetarako.

6.- Ez dira erregistroan aurkeztutzat joko dagokien araubide bereziak beste era batean aurkeztu behar direla ezartzen dien agiriak eta informazioa.

7.- Alkatetzaren ebazpenez, nahitaez bete beharreko eremuak onartuko dira, eredu normalizatuak erabili behar izanez gero.

8.- Bermatu egingo da erregistratze-izapidea euskararen eta gaztelaniaren artean aukeratutako hizkuntzan egin

registros electrónicos de cualquier Administración pública.

b) En las oficinas de Correos, en la forma que reglamentariamente se establezca.

c) En las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

d) En las oficinas de asistencia en materia de registros.

e) En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

5.- Los documentos en papel presentados de manera presencial ante el ayuntamiento deberán ser digitalizados (por el Servicio de Atención a la Ciudadanía-SAC-/ por la oficina de asistencia en materia de registros) para su incorporación al expediente administrativo electrónico, debiéndose devolver los originales al interesado, sin perjuicio de aquellos supuestos en que la norma determine la custodia por la Administración de los documentos presentados o resulte obligatoria la presentación de objetos o de documentos en un soporte específico no susceptibles de digitalización.

6.- No se tendrán por presentados en el registro aquellos documentos e información cuyo régimen especial establezca otra forma de presentación.

7.- Mediante resolución de Alcaldía se aprobarán los campos obligatorios en el caso de utilizarse modelos normalizados.

8.- Se garantizará que se pueda efectuar el trámite de registro en el idioma elegido entre el euskara y

ahal izatea.

9.- Honelako egoeretan dauden agiri elektronikokoak errefusatu ahalko dira:

a) Kode gaiztoa edo sistemaren segurtasunaren osotasunari eragiteko moduko gailua daukatenean.

b) Agiri normalizatuak erabiliz gero, nahitaez bete beharreko eremuak betetzen ez direnean, inkongruentziak, omisioak edo tratatzea eragozten duten beste kausa batzuk daukatenean, edo aurkezteko eskatzen diren ezaugarrietakoren bat falta dutenean.

Kasu batean zein bestean, horren berri emango zaio agiriaren bidaltzaileari, errefusatzeko arrazoiak adierazita, bai eta, posible baldin bada, akats horiek zuzentzeko bideak eta haiek aurkezteko helbidea ere. Interesdunak hala eskatuta, aurkezteko ahaleginaren justifikazioa emango da, errefusatu izanaren nondik norakoak ere jasota.

Agiri elektronikokoak errefusatzeko egoerak gertatu, baina erregistro elektronikoko automatikoki errefusatu ez dituen kasuetan, administrazio-organoren eskudunak dagokion akats-zuzenketaren errekerimendua egingo du, halakoari kasu egin ezean, agiriak aurkeztu izanak baliorik edo eraginkortasunik izango ez duela ohartarazita.

## **15. artikulua.- Epeen zenbaketa erregistroetan**

1.- Udalaren eta lotutako eta mendeko haren erakundearen erregistro

castellano.

9.- Se podrán rechazar documentos electrónicos que presenten las siguientes circunstancias:

a) Que contengan código malicioso o dispositivo susceptible de afectar a la integridad de la seguridad del sistema.

b) En el caso de utilización de documentos normalizados, cuando no se cumplimenten los campos requeridos como obligatorios, cuando contengan incongruencias, omisiones u otras causas que impidan su tratamiento o carezcan de alguna de las características exigidas para su presentación.

En ambos casos se informará de ello al remitente del documento con indicación de los motivos de rechazo a la misma, así como, si fuera posible, de los medios de subsanación de tales deficiencias y dirección en la que pueden presentarse. A solicitud del interesado se emitirá justificación del intento de presentación, que incluirá las circunstancias del rechazo.

En los supuestos en que concurren las circunstancias que puedan producir rechazo de documentos electrónicos y éste no se produzca de manera automática por el registro electrónico, el órgano administrativo competente requerirá la correspondiente subsanación con la advertencia de que si no se atiende al requerimiento la presentación carecerá de validez o eficacia.

## **Artículo 15.- Cómputo de plazos en los registros**

1.- El único calendario que se aplicará, a efectos del cómputo de

elektronikoan epeak zenbatzearen ondoreetarako, aplikatuko den egutegi bakarra izango da egoitza elektronikoan argitaratutakoa.

2.- Egun baliiodunetan ezarritako epeen zenbaketaren ondoreetarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egun baliogabe batean aurkeztutakoa hurrengo egun baliioduneko lehen orduan aurkeztutzat joko da, arau batek egun baliogabean hartzea ahalbidetu ezean. Agiriak egun baliogabean aurkeztu ziren benetako orduaren ordenaren arabera aurkeztutzat joko dira. Egun baliogabean aurkezturiko agiriak, ordena beraren arabera, hurrengo egun baliiodunean aurkezturikoak baino lehenagokotzat joko dira.

3.- Udalak eta berari lotutako edo beraren mendeko erakunde publikoek bete beharreko epeen zenbaketa erregistro elektronikoan aurkeztu izanaren dataren eta orduaren araberakoa izango da.

4.- Ustekabeko gorabehera tekniko batek edo mantentze teknikorako beharrezko jarduera planifikatu batek erregistro elektronikoari dagokion sistemak edo aplikazioak funtzionatzea galarazi duenean, Udalak eta berari lotutako edo beraren mendeko erakunde publikoek bukatu gabeko epeak luzatzea ezarri ahalko dute; hala, egoitza elektronikoan argitaratu beharko dute bai gertatu den gorabehera teknikoaren berri edo planifikaturiko eskuragarritasunik ezaren aldeaz aurreko abisua, bai bukatu gabeko epearen luzapen zehatza, halakorik luzatzen baldin

plazos en el registro electrónico del ayuntamiento y sus entidades y organismos públicos vinculados o dependientes, será el publicado en la sede electrónica.

2.- A los efectos del cómputo de los plazos fijados en días hábiles, y en lo que se refiere al cumplimiento de plazos por los interesados, la presentación en un día inhábil se entenderá realizada en la primera hora del primer día hábil siguiente salvo que una norma permita expresamente la recepción en día inhábil. Los documentos se considerarán presentados por el orden de hora efectiva en el que lo fueron en el día inhábil. Los documentos presentados en el día inhábil se reputarán anteriores, según el mismo orden, a los que lo fueran el primer día hábil posterior.

3.- El inicio del cómputo de los plazos que haya de cumplir el ayuntamiento y sus entidades y organismos públicos vinculados o dependientes, vendrá determinado por la fecha y hora de presentación en el registro electrónico.

4.- Cuando una incidencia técnica imprevista o una actuación planificada necesaria de mantenimiento técnico haya imposibilitado el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación que corresponda al registro electrónico, el ayuntamiento y sus entidades y organismos públicos vinculados o dependientes podrán determinar una ampliación de los plazos no vencidos, debiendo publicar en la sede electrónica tanto la incidencia técnica acontecida o aviso previo de no disponibilidad planificada como, en su caso, la ampliación concreta del plazo

bada.

no vencido.

## **16. artikulua.- Interesdunek aurkezturiko agiriak**

1.- Interesdunek administrazio-prozedurara eskatutako datuak eta agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala prozedura hastean, nola izapidetzean zehar, bai eta egoki irizten dioten beste edozein agiri ere. Interesdunek beren gain hartu beharko dute aurkeztu dituzten agirien egiazkotasunaren erantzukizuna.

2.- Udalaren egoitza elektronikoak, administrazio-prozedura bakoitzerako, erregistro elektronikoan eskabidea aurkeztean interesdunek erantsi beharreko datu eta agirien zerrenda sinplifikatu eta eguneratua eduki beharko du.

3.- Udalak ez die interesdunei eskatuko honako hauek aurkez ditzatela:

a) Jatorrizko agiriak, aplikagarria den arauak, salbuespen gisa, aurkakoa ezarri ezean.

c) Aplikagarria den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo agiriak.

d) Interesdunak beste edozein administrazio publikori lehendik aurkezturiko datu edo agiriak; halakoetan, interesdunak adierazi egin beharko du noiz eta zein administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen agiri horiek.

4<sup>1</sup>. - Interesdunek eskubidea dute erakundearen beraren eskuetan dauden dokumentuak edo beste edozein Administrazio sortutakoak ez

## **Artículo 16.- Documentos aportados por los interesados**

1.- Los interesados deberán aportar al procedimiento administrativo los datos y documentos exigidos, tanto en su inicio como en su tramitación, así como cualquier otro documento que estimen conveniente. Los interesados deberán responsabilizarse de la veracidad de los documentos que presenten.

2.- La sede electrónica del ayuntamiento contendrá, para cada uno de los procedimientos administrativos, la relación simplificada y actualizada de datos y documentos que los interesados deberán aportar en el momento de la presentación de su solicitud en el registro electrónico.

3.- El ayuntamiento no exigirá a los interesados la presentación de:

a) Documentos originales, salvo que, con carácter excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario.

c) Datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable.

d) Datos o documentos que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración pública, en cuyo caso, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos.

4<sup>3</sup>. - Los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la propia entidad o hayan sido elaborados por

aurkezteko.

5.- Udalak administrazio-prozedura hasi eta izapidetzeko beharrezko agiriak eta datuak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu, betiere, interesduna horren aurka agertzen ez bada. Interesduna ezingo da horren aurka agertu, baldin eta agiria aurkeztea nahitaezkoa bada, zehapen- edo ikuskapen-eskumenak gauzatzeko orduan<sup>2</sup>.

Udalak bere sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekotzarako plataformak edo administrazio publikoek gaitutako bestelako sistema elektronikoa kontsultatuz bilduko ditu beharrezko diren agiriak eta datuak.

6.- Salbuespenez, Udalak dokumentazioa aurkezteko eskatu ahalko du honako kasu hauetan:

a) Udalak ezin dituenean agiriak bildu aurreko zenbakian xedaturikoaren arabera.

b) Udalak interesdunari jatorrizko agiri pribatu edo administratibo bat aurkez dezala eskatu, eta hura paperezko formatuan dagoenean; halakoetan, interesdunak kopia kauto bat eskuratu beharko du bide elektronikoz aurkeztu baino lehen. Ondoriozko kopia elektronikoa espresuki emango du aditzera gorabehera hori. Kopia kautoak eskuratu ahalko dira aurreko arreta emateko bulegoetan – erregistro-arloko laguntzarako bulegoen eginkizuna beteko baitute– horretarako gaitutako enplegatu publikoen bidez, edo erakundeak onartu eta eskuragarri jarritako administrazio-jardun automatizatuko

cualquier otra Administración.

5.- El ayuntamiento podrá consultar o recabar los documentos y datos necesarios para la iniciación y tramitación del procedimiento administrativo salvo que el interesado se opusiere a ello. No cabrá la oposición cuando la aportación del documento se exigiera en el marco del ejercicio de potestades sancionadoras o de inspección.<sup>4</sup>

El ayuntamiento recabará los documentos y datos necesarios a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados por las distintas Administraciones públicas.

6.- Excepcionalmente, el ayuntamiento podrá solicitar la aportación de documentación:

a) Cuando el ayuntamiento no pudiera recabar los documentos de conformidad a lo previsto en el apartado anterior

b) Cuando el ayuntamiento solicite al interesado la presentación de un documento privado o administrativo original y éste estuviera en formato papel, en cuyo caso, el interesado deberá obtener una copia auténtica con carácter previo a su presentación electrónica. La copia electrónica resultante reflejará expresamente esta circunstancia. Las copias auténticas podrán obtenerse mediante los empleados públicos habilitados al efecto en las oficinas de atención presencial, que actuarán como oficinas de asistencia en materia de registros, o mediante procesos de actuación administrativa automatizada aprobados y puestos a disposición por



prozesuen bidez.

Beste administrazio batzuek eginiko kopia kautoak baliozkoak izango dira udal-administrazio honetan.

c) Agiriak prozeduran daukan garrantziak hala eskatzen duenean edo kopiaren kalitateak eragindako zalantzak daudenean, Udalak era arrazoituan galdegin ahalko du interesdunak aurkezturiko kopiak erka daitezen, eta horretarako jatorrizko agiria edo informazioa erakusteko eskatu ahalko du.

### **III. TITULUA.- IDENTIFIKAZIOA ETA IZENPE ELEKTRONIKOA**

#### **I. KAPITULUA.- HERRITARREN IDENTIFIKAZIA ETA IZENPE ELEKTRONIKOA**

##### **17. artikulua.- Identifikazioa eta izenpe elektronikoa administrazio-prozeduretan.**

1.- Udal-administrazioaren aurrean administrazio-prozedura batean jarduteko, betiere interesdunaren identifikazioa egin beharko da, eta, beharrezkotzat jotzen denean, haren borondate-adierazpena izenpe elektronikoko sistema baten bidez egiaztatu.

2.- Interesdunaren izenpe elektronikoa hauetarako soilik eskatuko da: eskabideak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekursoak jartzeko, akzioetan atzera egiteko, eta eskubideei uko egiteko. Gainerako jardunetarako, Udal honetan onarturiko sistemaren arabera soilik eskatu ahalko da interesdunen

la entidad.

Las copias auténticas realizadas en otras Administraciones públicas tendrán validez en esta Administración municipal.

c) Cuando la relevancia del documento en el procedimiento lo exija o existan dudas derivadas de la calidad de la copia, el ayuntamiento podrá solicitar de manera motivada el cotejo de las copias aportadas por el interesado, para lo que podrá requerir la exhibición del documento o de la información original.

### **TÍTULO III.- IDENTIFICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA**

#### **CAPÍTULO I.- IDENTIFICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA DE LOS CIUDADANOS**

##### **Artículo 17.- Identificación y firma electrónica en los procedimientos administrativos**

1.- La actuación en un procedimiento administrativo electrónico ante la Administración Municipal requerirá siempre la identificación del interesado y, cuando sea considerado necesario, la constatación de su declaración de voluntad a través de un sistema de firma electrónica.

2.- La firma electrónica del interesado sólo se requerirá para la formulación de solicitudes, presentación de declaraciones responsables o comunicaciones, interposición de recursos, desistimiento de acciones y renuncia a derechos. Para el resto de actuaciones sólo será exigible la acreditación de la identidad de los interesados de acuerdo los sistemas

identitatea egiaztatzeko.

3.- Interesdunen batek beharrezko bitarteko elektronikoa ez daukanean, administrazio-prozedurako haren identifikazioa edo izenpe elektronikoa balio osoz egin ahalko du horretarako gaitutako enplegatu publiko batek, helburu horretarako esleitu zaion izenpe elektronikoko sistema baliatuz. Halakoetan, interesdunak funtzionarioaren aurrean identifikatu beharko du bere burua, eta berariazko baimena eman beharko du jardun horretarako; hori jasota utzi beharko da, desadostasunen edo auzien kasuetarako.

#### **18. artikulua.- Identifikazioari eta izenpe elektronikoi buruzko arau orokorrak**

1.- Herritarrek beren burua elektronikoki identifikatu eta izenpetu ahalko dute Udal honen aurrean, identitatea behar bezala bermatzeko moduko erabiltzaileen aldeko erregistro bat daukan sistema bat erabiliz; horren ondoretarako, egoitza elektronikoa argitaratzen eta ordenantza honetan arautzen diren identifikaziorako eta izenpe elektronikorako sistemak onartu behar dira.

2.- Identifikazio elektronikoko sistemaren erabilerak doakoa izan beharko du Udal honentzat, eta elkarreragingarritasuneko eta segurtasuneko arauak bete beharko ditu.

3.- Mugaz gaindiko jarduna baldin bada, Europar Batasuneko estatuetan kokaturiko interesdunei onartuko zaie erabil dezaten izenpe edo zigilu

admitidos por este ayuntamiento.

3.- Cuando algún interesado no disponga de los medios electrónicos necesarios, su identificación o firma electrónica en el procedimiento administrativo podrá ser válidamente realizada por un empleado público habilitado al efecto mediante el uso del sistema de firma electrónica del que esté dotado para ello. En estos casos, el interesado deberá identificarse ante el funcionario y prestar su consentimiento expreso para esta actuación, de lo que deberá quedar constancia para los casos de discrepancia o litigio.

#### **Artículo 18.- Reglas generales relativas a la identificación y firma electrónica**

1.- Los ciudadanos podrán identificarse y firmar electrónicamente ante este ayuntamiento, empleando un sistema que cuente con un registro previo como usuario que permita garantizar su identidad de forma suficiente, debiéndose admitir, a estos efectos, los sistemas de identificación y firma electrónica publicitados en la sede electrónica y regulados en esta Ordenanza.

2.- El uso del sistema de identificación electrónica deberá ser gratuito para este ayuntamiento y cumplir las normas de interoperabilidad y seguridad.

3.- En el caso de tratarse de una actuación transfronteriza, se admitirá a los interesados establecidos en los restantes Estados miembro de la Unión Europea el uso de un sistema

elektronikoko sistema aurreratu bat, ziurtagiri kalifikatu batean oinarrituriko izenpe edo zigilu elektronikoko sistema aurreratu bat, edo izenpe edo zigilu elektronikoko kalifikatuko sistema bat, aplikagarria den Europako araudian definitutako formatuetan soil-soilik.

### **19. artikulua.- Identifikaziorako eta izenpe elektronikorako sistemak**

1.- Identifikaziorako eta izenpe elektronikorako sistemen erabilera eraenduko da halakoak eman eta kudeatzen dituen organo titularrak ezarritakoaren bidez, bai eta Alkatezaren ebazpenez onartzen den identifikaziorako eta izenpe elektronikorako Udalaren politikaren bidez ere, halakorik onartzen baldin bada.

2.- Elektronikoki identifikatzeko, interesdunek honako sistema hauek erabili ahalko dituzte:

a) Ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendaren barruko zerbitzu-emaileek emandako izenpe elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kalifikatueta oinarrituriko sistemak.

b) Ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendaren barruko zerbitzu-emaileek emandako zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kalifikatueta oinarrituriko sistemak.

c) Itundutako gakoaren sistema.

d) Identitatea bermatzeko moduko erabiltzaileen aldeko erregistro bat daukan beste edozein sistema,

de firma o sello electrónico avanzado, de firma o sello electrónico avanzado basado en certificado cualificado, o de firma o sello electrónico cualificado, exclusivamente en los formatos definidos en la normativa europea de aplicación.

### **Artículo 19.- Sistemas de identificación y firma electrónica**

1.- El uso de los sistemas de identificación y firma se regirá por lo que disponga el órgano titular de su expedición y gestión, así como por la política de identificación y firma electrónica del ayuntamiento que, en su caso, se apruebe por resolución de Alcaldía.

2.- Los interesados podrán emplear, para identificarse electrónicamente, los siguientes sistemas:

a) Sistemas basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de firma electrónica expedidos por prestadores incluidos en la lista de confianza de prestadores de servicio de certificación.

b) Sistemas basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de sello electrónico expedidos por prestadores incluidos en la lista de confianza de prestadores de servicio de certificación.

c) Sistema de claves concertadas.

d) Cualquier otro sistema que cuente con un registro previo como usuario que permita garantizar su identidad y se incorpore mediante resolución de

Alkatetzaren ebazpenez gehitua.

3.- Alkatetzaren ebazpenez, itundutako gakoien sistema propio baten erabilera kudeatzea eta arautzea erabaki ahalko da, aplikagarria den segurtasun-araudiari jarraituz betiere.

4.- Interesdunen agirien izenpe elektronikoa prozedura bakoitzean ezarrita dagoenaren arabera egingo da, eta izenpe-sistematzat onartu beharko dira aurreko bi zenbakian aipatutako identifikazio-sistemak, interesdunaren borondatearen eta adostasunaren autentikotasuna egiaztatzea ahalbidetzen baldin badute.

